Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4570

AGINDUA, 2009ko uztailaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Sestaoko udalerriko Maisu-Maistren etxean, 25 etxebizitza sozial esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duen eta hainbat zehaztasun finkatzen dituen 2009ko maiatzaren 22ko Agindua aldatzen duena.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2009ko maiatzaren 22ko Agindua, Sestaoko udalerriko Maisu-Maistren etxean, 25 etxebizitza sozial esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duena eta hainbat zehaztasun finkatzen dituena, 2009ko ekainaren 26ko EHAAn argitaratu zen.

Sestaoko sustapen honek 2006ko urriaren 26an eskuratu zuen behin-behineko kalifikazioa, EB2-1394/06-EE espediente-zenbakiarekin. Kalifikazio horren arabera, Sestaoko sustapen honetan 25 etxebizitza sozial ziren. 2009ko uztailaren 9an beste kalifikazio bat eskuratu zuen sustapen honek eta, horren arabera, sustapenak 29 etxebizitza sozial izango ditu.

Beraz, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren maiatzaren 22ko Aginduaren zenbait zehaztasun aldatu behar dira.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10. artikuluan eta lehenengo xedapen iragankorrean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuaren 5. artikuluan, eta babes ofizialeko etxebizitzen esleipen prozedurei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Sestao udalerriko Maisu-Maistren etxean 25 etxebizitza sozial esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duen eta hainbat zehaztasun finkatzen dituen 2009ko maiatzaren 22ko Aginduaren Lehenengo eta Laugarren ebazpenak aldatzea. Honela geratuko dira idatzita:

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

4570

ORDEN de 15 de julio de 2009, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de modificación de la Orden de 22 de mayo de 2009, por la que se inicia el proceso de selección y se determinan diversas especificaciones para la adjudicación de 25 viviendas sociales en la Casa de los Maestros, en el municipio de Sestao.

La Orden de 22 de mayo de 2009, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se inicia el proceso de selección y se determinan diversas especificaciones para la adjudicación de 25 viviendas sociales en la Casa de los Maestros en el municipio de Sestao, fue publicada en el BOPV el 26 de junio de 2009.

Esta promoción de Sestao recibió la correspondiente calificación provisional con fecha 26 de octubre de 2006 bajo el número de expediente EB2-1394/06-EE. Según lo establecido en esta calificación, la promoción contaba con 25 viviendas sociales. Sin embargo, el 9 de julio de 2009, esta promoción ha recibido una nueva calificación según la cual pasa a ser de 29 viviendas sociales.

Se procede por tanto a modificar algunas de las especificaciones de la Orden de 22 de mayo del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes arriba referida.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 10 y en la disposición transitoria primera del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, en relación con el artículo 5 del Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y en relación con la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial.

DISPONGO:

Primero.– Modificar los resuelvos Primero y Cuarto de la Orden de 22 de mayo, por la que se inicia el proceso de selección y se determinan diversas especificaciones para la adjudicación de 25 viviendas sociales en la Casa de los Maestros, en el municipio de Sestao, que quedan redactados de la siguiente forma:

«Lehenengoa.– Sestaoko udalerrian 29 etxebizitza sozial esleituko dira oraingo sustapen honetan; horietatik 5 etxebizitzako berariazko beharrak asetzeko kenduko dira eta 1 birkokatze-operazioak direla-eta.

Laugarrena.– Esleitu beharreko etxebizitza horietatik honakoak gordeko dira:

a) 2 etxebizitza, mugikortasun urri iraunkorra duten elbarriei egokitutakoak. 2008ko apirilaren 16ko Aginduak, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen duenak, 8. artikuluan aipatzen dituen 3 baremoetatik lehenengo bien barne daudenak kupo honetan sartuko dira. Aldi berean baremo ezberdinetan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte, aipatu aginduan finkatutako hurrenkeran sartuko dira.

b) 5 etxebizitza, 25 urtetik beherako bizikidez osaturiko bizikidetza-unitateentzat.

c) 16 etxebizitza, gainerako eskatzaileentzat.

Eskatzaileek aldi berean hainbat kupotan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte, zenbaki honetan finkatutako lehentasun-hurrenkera jarraituko da.»

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke hilabeteko epean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari zuzenduta; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa hasieratik, zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 15a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

«Primero.– El número de viviendas sociales a adjudicar en la presente promoción del municipio de Sestao es de 29, de las cuales se detraen 5 para destinarlas a necesidades específicas de vivienda y 1 como consecuencia de operaciones de realojo.

Cuarto.– Del total de viviendas a adjudicar, se reservarán los siguientes cupos:

a) 2 viviendas adaptadas para persona discapacitada con movilidad reducida de carácter permanente. Se incluirá en este cupo a los que formen parte de los 2 primeros baremos de los 3 a los que se refiere el artículo 8 de la Orden de 16 de abril de 2008, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial. En el caso de que pudieran formar parte simultáneamente de varios de estos baremos se les incluirá de acuerdo al orden dispuesto en la citada.

b) 5 viviendas para unidades convivenciales cuyos integrantes tengan una edad inferior a 25 años.

c) 16 viviendas para el resto de solicitantes.

En el caso de que las solicitudes reúnan las condiciones necesarias para formar parte simultáneamente de varios de los cupos se seguirá el orden de prelación señalado en este número.»

Contra la presente Orden procede interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de julio de 2009.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.